Idatzizko ulermena (1)

ZUHAITZEKO JAINKOA



Milaka urte pasatu dira istorio hau gertatu zenetik. Indiako eskualde batean, bazen errege bat beste errege guztiak baino handinahiagoa zena. Haren botere-nahiak ez zuen mugarik.

Egun batean, inoizko jauregirik handiena eraikitzea bururatu zitzaion, baina ez zutabe askoduna, beste erregeenak bezalakoa. Zutabe bakar baten gainean eraiki nahi izan zuen. Horretarako, lorategian zen zuhaitzik handiena mozteko agindu zien bere langileei. Langileek erregearen lorategi eskergaarakatu zuten eta laster aurkitu zuten hango zuhaitzik bikainena. Zuhaitz hura antzinakoa zen eta erresumako jendeak errespetu handia zion. Alabaina, mozteko erabakia harturik zegoen.

Jakina denez, zuhaitz guztiek badaukate jainko bat beren barnean bizi dena. Horregatik, zuhaitz bat moztu baino lehen, loreak eskaini behar zaizkio, eta beraren inguruan, kolorezko argiak jarri, barruko jainkoa beste bizileku baten bila joan dadin. Horrelaxe, bada, eskaintza guztiak egin zituzten zuhaitz erraldoiaren inguruan eta honela hitz egin zioten hango jainkoari:

- Zazpi egun barru, zuhaitz hau moztuko dugu, erregeak aginduta. Zuhaitz bikain honetan bizi den jainkoari kanpora joan dadin eskatzen diogu, ezer gerta ez dakion.

Zuhaitzeko jainkoak honela erantzun zuen zuhaitz barnetik:

LIVEWORKSHEETS

– Idatzita dago zuhaitz hau mozten duzuenean ni hil egingo naizela. Baina txarrena da, ni erortzean, inguruko zuhaitz guztiak zapalduko ditudala eta, horretara, inguruko jainko txikiago guztiak ere hilko dira.

Hori dela eta, zuhaitzeko jainkoak erregearekin hitz egitea erabaki zuen eta, bizilekua utzirik, argi distiratsu baten tankeran azaldu zen erregearen aurrean. Erregeak galdetu zion:

– Nor zara, izar batek adina distiratzen duzun hori?

– Zure erresuma osoan Zoriontasunaren Zuhaitza deitzen didate. Hirurogeita hamar mila urte ditut eta guztiek maite naute. Zergatik hil nahi nauzu?

Erregeak berehala azaldu zion bere jauregia eraikitzeko egokiena zela, eta orduan, zuhaitzak hauxe esan zion:

– Hori horrela bada, mesede bat eskatu nahi dizut. Lehenik, goialdea moztea; ondoren, erdialdea; eta, azkenik sustraiak. Horrela, erortzean, ez ditut nire inguruko zuhaitzak zapalduko.

– Oi bihotz handiko zuhaitza, salbazioa merezi duzu zure ingurukoengatik sufrimendu bat hiruta jasatzeko prest bazaude. Ez zaitut sekula moztuko.

Eta zuhaitza beste hainbeste urtetan bizi izan zen.

INDIAKO HERRI-IPUINA

LIVEWORKSHEETS

Erantzun:

1. Noiz eta non gertatu zen istorioa?

2. Zer nahi zuen errege handinahiak?

3. Zer egin zuen zuhaitzeko jainkoak?

4. Zer eskatu zion erregeari?

5. Zer erantzun zion erregeak?

6. Testuan Indiako sinesmen eta ohitura zahar bat azaltzen da. Zein?

Galderen erantzunak errepasatu ditut: BAI

EZ

LIVEWORKSHEETS